
PARTE HARTZEKO ESKAKIZUNAK

Konpetentziak Ebaluatu eta Egiaztatzeko Prozedurara aurkezen direnek honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

- a)** Espainiar nazionalitatea izatea, Europako Erkidegoko herritartasunaren erregistro-ziurtagiria edo Europar Batasuneko herritarraren senitartekoaren txartela lortu izana, edo Espainian bizilekua izateko baimena edo bizilekua izateko eta lan egiteko baimena indarrean izatea, atzerritartasunari eta immigrazioari buruzko Espainiako araudian ezarritako terminoetan.
- b)** Izena ematerakoan 18 urte beteta izatea, 1. mailako kualifikazioei dagozkien konpetentzia-atalen kasuan, eta 20 urte 2. eta 3. mailakoen kasuan.
- c)** Justifikatu lan-esperientzia eta / edo prestakuntza ez-formalak, egiaztatzeko behar diren konpetentzia-ataletarako, deialdia egin aurreko azken 10 urteetan:
 - Lan-esperientiaren kasuan. Gutxienez 3 urte justifikatzea, gutxienez 2.000 ordu lan eginda guztira 2. eta 3. mailako konpetentzia-ataletarako eta 1. maila konpetentzia-ataletarako 2 urte behar dira laneko esperientzia, gutxienez 1.200 ordu lan eginda guztira.
 - Prestakuntza ez-formalaren kasuan. Konpetentzia-atal bakoitzeko eskakizun orduak I. eranskinean adierazitakoak dira, prestakuntza ez formalen gutxienerako 300 ordu baino gehiagoko justifikazioa 2 eta 3 mailari dagozkionean, kasu horretan, gutxienez 300 ordu izango dira eta 200 ordu baino gehiagoko 1. mailari dagozkionean, gutxienez 200 ordu izango dira.